

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA
IVAP

@@@EBAZPENA, 2008ko apirilaren 11koa, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egiten duena.@@@

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, bere 33. artikuluan ezartzen duena betez, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro antolatzen ditu hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak, dekretu honen esparruan zehazten diren Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioen zerbitzuan diharduten langileek hizkuntza-eskakizuna egiazta dezaten.

Halaber, Ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko hizkuntza-normalkuntzarako neurriak finkatzen dituenak, bere 11.3 paragrafoan ezartzen duena betez, Justizia Administrazioiko ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoetako eta auzitegi medikuen kidegoko funtzionarioek ere aukera dute Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro antolatzen dituen hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdietara aurkezteko.

Bestalde, 1999ko otsailaren 18ko dataz, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten.

Lankidetzaren hitzarmen honetako bosgarren klausulak bide ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko karrera judizialeko kideei Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen dituen deialdietara aurkezteko.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Karrera Fiskaleko eta Idazkarien Kidegoko kideek euskara ikasi eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeari begira, 2005eko uztailaren 28an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten honakook: Justizia Ministerioak, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak.

Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetzaren hitzarmen horrek, laugarren klausularen bidez, aukera ematen die Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioiko Karrera Fiskaleko eta Idazkarien Kidegoko kideei hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko antolatzen diren deialdietara aurkezteko.

Orobat, 2008ko martxoaren 14ko dataz, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko arloan Akordioa sinatu zuten. Akordio horren ondorioz, Osakidetzako langile finko

eta interinoek aukera izango dute IVAPeko 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deialdietara aurkezteko, beti ere lanpostuan 4. hizkuntza-eskakizuna badute ezarrita, edota IVAPek antolatzen duen 4. hizkuntza eskakizuneko ikastaroa egina badaukate edo egiten ari badira. Baldintza horietako bat betetzeaz gain, Osakidetzako langile horiek IVAPek 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeko deialdian jarritako baldintza orokorrak bete beharko dituzte.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak aldiro deitzen dituen ohiko deialdietan onartua izateko, ezinbestekotzat jotzen da eskatzaileak gutxieneko euskara maila izatea, kasuan kasuko hizkuntza-gaitasunari buruzko ikas-programen arabera. Administrazio-jardueraren goiburu izan behar duen eraginkortasunari zor zaionagatik, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak iraupen laburreko proba objektiboen bidez neurtuko du eskatzailearen ezagupen-maila, giza bitartekoen ahaleginak eta baliabide materialak alferrik gal ez ditzan, ez Administrazioak, ezta azterketa egileak ere.

Helburu horrekin lotuta, lehen, bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetara aurkeztu ahal izateko euskararen gutxieneko ezagupen-maila izatea eskatzen da. Horrela bada, lehen, bigarren, hirugarren edo laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketetarako eskaera egiten dutenek atariko proba gainditu behar dute deialdian onartua izateko.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2008ko apirilaren 8an egindako bilkuran 64/2008 Dekretua onartu du, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzea. Dekretuak IVAPek deitutako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko proben egituraketari eragiten dio.

64/2008 Dekretuaren lehenengo Xedapen Iragankorrak ezartzen duenez, elkarren artean baliokidetu diren euskararen gaitasuna egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiriak eskuratzeko probak urtebeteko epean egokitu egingo dira, horietako bakoitzak parekatuta dagoen Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateria mailarekin bat egin dezan. Hori dela eta, deialdi honetan egingo diren probak, hau da, egokitze epean egingo direnak, orain arteko sistemaren arabekoak izango dira.

Bestalde, esandako Apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuaren bigarren Indargabetze Xedapenak indarrrik gabe uzten du EAEko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 33. artikuluko 8. paragrafoa, ohiko deialdietako konparaziozko azterketak ezarri eta arautzen dituen. Ondorioz, aipatutako erabakia betez, deialdi honetan ez da konparaziozko azterketetarako deirik egingo.

Azkenik, 86/1997 Dekretuaren 33. artikulua arautzen duena betez, deialdi honetako oinarriak eta hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian argitaratuko dira. Gainerako ebazpenak, hau da, onartuen eta baztertuen zerrenda dakarrena (behin-behinekoa eta behin betikoa), Epaimahaia ezagutzera eman eta

azterketen egutegia zehazten duena, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian bakarrik argitaratuko dira.

Horiek horrela, aipatutako araudia betez, hauxe

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzearen euskara probak egiteko 2008 urteari dagokion lehenengo deialdia onartzea, eranskinean agertzen diren oinarrien arabera.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 11.

Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
Jon Koldobika Urrutia Mingo

I. ERANSKINA

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO DEIALDIAREN EBAZPENARENA

OINARRIAK

1. oinarria.- Deialdi honen bidez deitutako azterketetara aurkeztu ahal izango dira:

- Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren ezarpen-esparru barruko Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren zerbitzuan diharduten langileak.
- Justizia Administrazioako ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoetako funtzionarioak eta auzitegi medikuen kidegoko funtzionarioak, ekainaren 26ko 117/2001 Dekretuaren 11.3 paragrafoak ezartzen duena betez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako karrera judizialeko kide, kidegai, behin-behineko epaile, ordezkotza magistratu, ordezkotza epaile eta bake-epaileak, 1999ko otsailaren 18ko datuz, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren bitartez, Aginte Judizialaren Kontseilu Gorenak eta Eusko Jaurlaritzak sinatu zuten lankidetzak hitzarmenaren bosgarren klausulak ahalbideratzen duena betez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako Karrera Fiskaleko kide eta kidegaiak, ordezkotza fiskalak, Idazkari Judizialen Kidegoko kide eta kidegaiak, eta behin-behineko Idazkari Judizialak, 2005eko uztailaren 28an Justizia Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako lankidetzak hitzarmenak ezartzen duena betez.
- Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak 2008ko martxoaren 14an sinatutako Akordioa betez, Akordioak zehazten dituen Osakidetzako langileek aukera izango dute aurkezteko IVAPeko 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzekeko probetara.

2. oinarria.- Deialdi honek lehenengo, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzekeo aukera ematen du. Edozein modutara, azterketarigaiek hizkuntza-eskakizun bakarreko azterketa egin ahal izango dute.

3. oinarria.- Xede eta burubiderik gabeko azterketarik ez egitearren, deialdi honetan lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren hizkuntza-eskakizunetara aurkeztu ahal izateko euskararen gutxieneko ezagupen-maila izatea eskatzen da. Gutxieneko ezagupen-maila hori atariko probaren bidez neurtuko da. Atariko proba desberdina izango da egiaztatu nahi den hizkuntza-eskakizunaren arabera, eta proba hau gaingaitzen dutenak bakarrik izango dira onartuta deialdian.

Halaber, proba hau egitera aurkeztu eta gaingaitzen ez dutenak, deialdiko baztertuen zerrendan agertuko dira ondorio guztietarako. Beraz, ezingo dira aurkeztu ohiko azterketara.

Atariko proba gainditzeak deialdi honetako azterketetara aurkezteko balio du bakarrik. Emaitza honek ez du baliorik izango ondorengo deialdietarako.

4. oinarria.- Deialdi honetara aurkezteko eskabideak egiteko epea amaitu, eta horiek aztertu ondoren, atariko probarako deia egingo du IVAPek bere web-orrian www.ivap.euskadi.net eta bere iragarki taulen bidez. Deiarekin batera atariko proban parte hartu behar dutenen zerrenda jakinaraziko da. Atariko proba lurraldeka egingo da eta langile bakoitzak eskaeran jarri duen lurraldean egingo du.

Hizkuntza-eskakizun bakoitzaren atariko proba zuzendu ondoren, emaitza IVAPen web-orrian argitaratuko da.

Atariko proba egitera deitutakoen zerrendan agertu eta proba horretara aurkezten ez direnak, deialdiko baztertuen zerrendan agertuko dira ondorio guztietarako.

5. oinarria.- Laugarren hizkuntza-eskakizuneko azterketa, lanpostuan hizkuntza-eskakizun hori daukaten langileek, lanpostuan 3. hizkuntza-eskakizuna edukita 3. hori egiaztatu edo honen baliokidea den tituluren bat lortu duten langileek eta, azkenik, betetzen duten lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna edozein izanda ere, gutxienez erdi mailako titulazioa izan eta 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu edo honen baliokidea den tituluren bat lortu duten langileek egin ahal izango dute.

Lanpostuan oraindik hizkuntza-eskakizunik ezarrita ez daukaten langileen kasuan, laugarren hizkuntza-eskakizuneko azterketa egin ahal izateko unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulazioa eta 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta edo honen baliokidea den tituluren bat izatea eskatuko da.

Osakidetzako langile finko eta interinoek, oinarri honetako baldintzak betetzeaz gain, 2008ko martxoaren 14ko dataz, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Osakidetzak hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke arloan sinatutako Akordioak zehazten dituen baldintzak bete beharko dituzte.

Hizkuntza-eskakizun honetara aurkezteko unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulazioa beharrezkoa den kasuetan, lehenengo aldiz aurkezten diren langileek eskabidearekin batera tituluaren kopia bidali beharko dute. Modu berean, lehenengo aldiz aurkeztu eta 3. hizkuntza-eskakizunaren baliokidea den tituluren bat daukatenean honen kopia ere bidali beharko dute.

6. oinarria.- Azterketa egiteko egokitzapenak behar dituzten azterketarigaiak eskari-orrian adierazi behar dute hori. Azterketarigai hauei hizkuntza gaitasun berdina eskatuko zaie.

7. oinarria.- Azterketak zuzendu eta neurtuko dituzten epaimahaikide titularrak eta ordezkioak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak zuzendariak izendatuko ditu ebazpen bidez. Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraituz, epaitu beharreko proben edukiak nolakoak diren kontuan hartuta osatuko da Epaimahaia. Epaimahaikiderik gehienak karrerako

funtzionarioak edo langile finkoak izango dira eta 4. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta izan beharko dute.

Nolanahi ere, epaimahaiburua Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Euskalduntze zerbitziburua edo berak izendatutako ordezkoa izango da eta idazkaria Zerbitzu bereko teknikari bat.

Epaimahaiak barne-jarduerarako hartutako arauen kalterik gabe, egoki ikusten dituen laguntzaileak izendatuko ditu.

8. oinarria.- Azterketetan parte hartzekotan, eskabideak aurkezteko epea Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den biharamunetik hasita, 15 egun naturalekoa izango da.

Eskabideak, epe horren barruan, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak beren beregi prestatutako eskabide-orriaren bidez aurkeztu beharko dira.

Eskabide-orria deialdi honen II eranskinean eta Interneteko www.ivap.euskadi.net helbideko Euskara atalaren Hizkuntza-eskaizunak azpiatalean eskainiko da. Eusko Jaurlaritzako langileek Intraneteko Jakina atariko Webs EE.AA. eta BB.PP. atalaren barruan ere eskuratu ahal izango dute.

Interesatuak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen edozein egoitzatan aurkeztuko dute eskabidea. Hona hemen helbideak:

Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Errekalde zumarkalea, 18. 48009 Bilbo
Prim, 7. 20006 Donostia-San Sebastián
Unibertsitateko etorbidea. 20560 Oñati

Halaber, eskabideak aurkez daitezke azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. atalak dioen edozein eratan.

Eusko Jaurlaritzako langileek era elektronikoa ere egin ahal izango dute deialdi honetarako eskabidea. Horretarako, langileek intraneteko Jakina atarian Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ezarritako helbide honetara jo beharko dute: <http://www9.ivap.jakina.ejgvdns/he/indice.html>. Helbide honetara jo baino lehen, interesatuak XL-Nets segurtasuneko sisteman sartu behar du.

Eskabidea era elektronikoa egin duen langileak ez du paperezko eskabidea aurkeztu behar.

9. oinarria.- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako deialdietara lehenengo aldiz aurkezten direnek, edota inoiz aurkeztu arren, ondoren lanpostuz aldatu direnek, eskabidearekin batera, jarraian zehazten diren agiriak aurkeztu beharko dituzte hizkuntza-eskakizunen erregistroaren ondorioetarako:

- Nortasun Agiriaren fotokopia

- Funtzionario izendapenaren edo lan-hitzarmenaren fotokopia.

Dokumentu hauek aurkezterik ez duten langileek funtzio publikoko gaietan eskumena duen organo titularren ziurtagiria bidali beharko dute, beren lan-egoera ziurtatzeko.

10. oinarria.- Eskabideak aurkezteko epea amaitu, eta atariko probaren emaitzak jakinarazi ondoren, onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda erabakiko du Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendari jaunak, eta bere ebazpen baten bitartez jakinaraziko da. Ebazpen hori Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian argitaratuko da.

Onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, 7 egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziook idatziz aurkeztu behar zaizkio Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariari.

11. oinarria.- Epea amaituta erreklamaziorik ez bada, onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko da.

Erreklamaziorik egon bada, aurkeztutakoak aztertu eta ebatzi ondoren, onartutako eta baztertutako azterketarigaien behin betiko zerrenda argitaratuko da Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian. Azterketak egiten direnerako behin betiko zerrenda argitaraturik ez badago, erreklamazioa aurkeztu duten azterketarigaiak azterketa egin ahal izango dute. Azterketa honek, ordea, ez du inolako baliorik izango azterketarigaia baztertuta gelditzen bada.

12. oinarria.- Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak egokituko du azterketen egutegia eta azterketak egiteko tokiak, eskaera-kopurua eta azterketak egiteko behar diren baliabideak kontuan hartuta.

Azterketen egunak, lekuak eta orduak epaimahaikideak izendatzeko ebazpenean bertan jakinaraziko dira Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian.

Ebazpenean zehazten diren azterketa egunak eta tokiak dira ofizialak eta azterketariak onartuta dauden hizkuntza-eskakizunari egokitutako egunean eta tokian bakarrik egin ahal izango dute azterketa.

Azterketa egin ahal izateko derrigorrezkoa da azterketariak NAN agiria edo pasaporteak aurkeztea.

13. oinarria.- Hizkuntza-eskakizun bakoitzean eskatuko den ezagupen maila neurtzeko ondorengoak hartuko dira kontuan: batetik, 86/1997 Dekretuaren 13.2. atalean eta Eranskinean hizkuntza-eskakizun bakoitzerako zehaztutako hizkuntza gaitasunak; eta, bestetik, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren 1990.eko uztailaren 5eko Ebazpenean hizkuntza-eskakizun bakoitzerako ezarritako egitarauak.

14. oinarria.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen kalifikazioa orokorra izango da, hau da, "gai" edo "ez gai", trebetasun bakoitzerako gaitasuna ere adieraziko delarik.

15. oinarria.- Azterketen behin-behineko emaitzak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren ebazpen bidez jakinaraziko dira eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 5 egun naturaleko epea izango dute interesatuek erreklamazioak aurkezteko Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren aurrean.

Epe hori igaro ondoren, erreklamaziorik aurkeztu ez duten azterketarien emaitzak behin betiko bihurtuko dira eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapen hauek ondorioak izango dituzte emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunetik hasita.

Emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen diren egun berean, argitaratuko dira Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen web-orrian ere.

16. oinarria.- Emaitzen kontrako erreklamazio epea amaituta, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariak aurkeztutako erreklamazioak onartuz edo gaitzetsiz ebatziko ditu. Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Ebazpen honen kontra gora jotzeko errekurtsioa ezarri ahal izango zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari, berau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Epe hori igarota, errekurtsorik aurkeztu ezean, erreklamazioen ondorioz erabakitako emaitzak behin betiko bihurtuko dira eta hizkuntza-eskakizunen egiaztapenek ondorioak izango dituzte emaitza hauek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako egunetik hasita.

17. oinarria.- Proba hauen bidez hizkuntza-eskakizunen bat egiaztatzen dutenek Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakunde zuzendariaren ziurtagiria jasoko dute.

18. oinarria.- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenaren jarraipena eta kudeaketa egiteko, deialdian parte hartuko dutenen datu pertsonalak tratatu eta argitara emango dira, ebazpen honek ezarritakoaren arabera (eskabideak, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak eta behin betikoak, azterketen emaitzak...).

Deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko.

Datu pertsonalak erabiltzeko, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak ezarritakoa eta 994/1999 ED bidez onartutako datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurriei buruzko araudiak ezarritakoa beteko da.

Izaera pertsonaleko datuen fitxategi baten egongo da jasota informazioa eta datuak jakiteko, zuzentzeko, ezabatzeko edo datuen aurka egiteko eskubideak

baliatu nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo behar da:
Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

19. oinarria.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egiten duen Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpen honen kontra, lehen aipatutako azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114 eta hurrengo atalen arabera, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko sailburuaren aurrean gora jotzeko errekurtsua ezarri ahal izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.